

EKINTZAILEEI LAGUNTZEKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEKO 2015eko **OINARRIAK ETA DEIALDIA**

1. ARAUDI ERREGULATZAILEA

Oinarri hauen babes diren araudi eta xedapenak honakoak dira:

- 2015eko uztailaren 23ko ebazpena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Horren bidez argitaratzen da ekintzaileentzako 2015eko laguntzen deialdia (15/08/27ko EHAA).

- Azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra (03/11/18ko BOE).

- Ekainaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru-laguntzen Lege Orokorri dagokion Erregelamendua onartzen duena (06/07/25eko BOE).

- Leioako Udalak ematen dituen diru-laguntzak arautzeko oinarriak onartzen dituen ordenantza orokorra. (13/02/11ko BAO).

- 2.295 Alkatetza Dekretua (15/10/08).

- 2015eko irailaren 6an, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Leioako Udalak sinatutako hitzarmena ekintzaileentzako laguntzen deialdia abian jartzeko, eta Leioako Udalari baimena ematen diona Entitate Laguntzaile gisa jardun dezan.

- 2015eko irailaren 5eko ebazpena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Horren bidez, tokiko ekintzailetza proiektuen barruan, enpresa ideia garatzeko laguntzen deialdia egiteko Entitate Laguntzaile gisa jarduteko baimena duten entitateak zeintzuk diren zehazten da.

- 2015eko irailaren 5eko ebazpena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Horren bidez, tokiko ekintzailetza proiektuen barruan, enpresa jarduera berriak abian jartzea sustatzeko laguntzen deialdia egiteko Entitate Laguntzaile gisa jarduteko baimena duten entitateak zeintzuk diren zehazten da.

2. XEDEA

Enpresa proiektuen promotore direnei laguntzeko diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia ezartzea, bi laguntza ildoren bitartez:

1.- Ekintzaileei ematekoak diren laguntza ekonomikoak, eskusiboki aritzeko gerora bideragarritasun-plan bat gauzatzeko bide emango duen enpresa-idea bat sortzen, aztertzen eta egituratzen, prozesu horretan laguntza edota tutoretza ematea helburu duten tokiko proiektuen baitan. (Enpresa ideia garatzeko laguntzak).

2.- Negozio-idea zehatz bat duten eta tokiko ekintzailetza-proiektuetan parte hartzen duten pertsona ekintzaileen enpresa-proiektu berriak sustatzeko laguntzak. (Enpresa proiektu berriak abian jartzeko laguntzak).

I. KAPITULUA

ENPRESA IDEIA GARATZEKO LAGUNTZAK, TOKIKO EKINTZAIETZA PROIEKTUEN MARKOAN

3. ONURADUNAK

1.– Deialdi honetan jasotako laguntzen onuradun izan ahalko dira, eskabidea aurkezten duten unean, baldintza hauek betetzen dituzten pertsona ekintzaileak:

- a) Leioan erroldatuta daude eta Leioan bizi dira oinarri hauek argitaratzen diren datan. Baldintza hau ez da nahitaezkoa izango aurreikusita baldin badago enpresa-jarduera Leioan instalatzea. Kasu horretan, onuradunak EAEn erroldatuta egon beharko du eta bertan bizi.
- b) Langabeak dira eta enplegu-eskatzaile gisa izena emanda daude Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan.
- c) Ez dute inoiz izena eman Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergaren (IAE) erroldan, ez eta Langile Autonomoen Araubide Berezian ere.
- d) Badute ideia bat enpresa- edo negozio-proiektu bat garatzeko jarduerar- arlo batean (jarduera-ar- lo hori edozein izan daiteke).

- e) Behargintza Leioaren ekintzaitza-arloko aholkuak eta laguntza emateko prozesu batean daude.
- f) Leioako Udalak, 2013 eta 2014 ekitaldietan, ekintzaileei laguntzeko kudeatu dituen deialdietan, jarduera berria abian jartzeko laguntzarik jaso ez izana.

2.- Laguntza hauen onuradun izateko, promotoreak konpromiso hauek hartu beharko ditu:

- a) Beren enpresa-idea aztertzen eta garatzen soilik arituko dira.
- b) Enpresa-idea sortzeko eta garatzeko aholkuak eta laguntza ematea xede duten jarduera guztietara joan beharko dute. Leioako Behargintzak zehaztuko ditu jarduera horiek.
- c) Xede berbererako diren beste diru-laguntzarik ez jasotzea.

3.- Zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza eta laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zigortuta dauden pertsona fisikoek ezin izango dituzte deialdi honetan jasotako laguntzak eskuratu, ez eta hartarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean daudeneke ere, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, otsailaren 18ko 4/2005 Legeari, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerakoari, jarraituz.

4.- Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi den eta oraindik bideratzen ari den itzultzeko edo zigortzeko prozedura oro amaitzea ezinbestekoa izango da onuradunei laguntzak eta diru-laguntzak emateko eta ordaintzeko.

4. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK

Deialdi honetan, edozein jarduera-arlotan enpresa-idea bat aztertzeko eta garatzeko eta horretan soilik aritzeko emango dugu diru-laguntza, Leioako Behargintzaren laguntza edota tutoretza-proiekturen batean parte hartzen dutenei.

Deialdi honen babespean egiten eta aztertzen diren jarduerak, gutxienez, hiru hilabete iraungo dute, eta 2015eko urriaren 31 baino lehenago hasi beharko dute, ezinbestean.

5. LAGUNTZA KOPURUA, ZENBATEKO ETA ORDAINTZEKO MODUA

Laguntza kopurua eta promotoreei euren enpresa ideia garatzeko emango zaizkien gehienezko zenbatekoak honako hauek dira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2015eko urriaren 5eko ebazpenaren arabera:

Laguntza prozesua hasten den unean, 25 urte baino gutxiago duten ekintzaileentzat:

- 3 laguntza ekintzailea emakumea bada.
- 2 laguntza ekintzailea gizona bada.

Laguntza prozesua hasten den unean, 25 urteko edo urte baino gehiago duten ekintzaileentzat:

- 8 laguntza ekintzailea emakumea bada.
- 6 laguntza ekintzailea gizona bada.

Sustatzaileei enpresa-idea garatzeko eman beharreko laguntza, gehienez, 1.000 eurokoa izango da sustatzaile bakoitzeko. Zenbateko horrek % 15eko igoera izango du, baldin eta laguntza prozesua hasten duen unean ekintzailea 18 urtetik gorakoa eta 25etik beherakoa bada. Horrez gain, beste % 15eko igoera izango du baldin eta ekintzailea emakumezkoa bada.

Laguntza emateko ebazpena egin ondoren, Leioako Udalak diru-laguntza osorik ordainduko die onuradunei ordainketa bakar baten, betiere, aurretik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzutik behar diren ordainketak egiteko fondoak jaso baditu.

Esleipendunei diru-sarrera egin dakien, Hirugarrenei Alta emateko Agiria aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta.

6. EMAKIDA PROZEDURA

1.- Publizitate, konpetentzia eta objektibotasun irizpideei so eginik, kapitulu honetan araututako diru-laguntzak zozketa publiko bidez emango dira, epe barruan eta Leioako Udalaren oinarri arautzaile eta deialdiko (2015eko uztailaren 23ko ebazpenaren markoan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena) baldintzak beteta eskatu dituzten guztien artean.

Leioako Udalaren Berdintasun Planak eta Lanbideren 2013-2016 Plan Estrategikoak (E4-1.3 ekintza-lerroa: gizonek eta emakumeek enplegua eta prestakuntza eskuratzeko orduan aukera berdinak dituztela, lana eta bizitza pribatua uztartzen direla eta genero identitatearen aniztasuna kudeatzeko bestelako politiketan aurrera egiten dela bermatzeko programa zehatzak garatzea. P1 – 3.3 ekintza-lerroa: Genero-perspektiba Lanbideren jardueran eta gobernantza-ereduan sartzea zeharkako prozesu gisa) markatutako ildo estrategikoei jarraiki, deialdi honetan genero ikuspegia txertatzen da. Genero aldagaia sartuz, hautatuen %40 emakumeak izatea lortu nahi da.

Lehen zozketa bat egingo da emakumeek planteatutako proiektuen artean, 25 urtetik beherakoak eta 25 urtekoak edo nagusiagoak banatuta harturik, talde bakoitzarentzako laguntzak betetzeko helburuz, oinarri hauetako 5. artikularekin ados.

Lehen zozketa hau ez da beharrezkoa izango, talde bakoitzean, emakumeek aurkeztutako proiektu kopurua eta Udalak dauzkan laguntza kopurua berberak edo gutxiago balira. Kasu horretan, zuzenean esleituko zaizkie diru-laguntza eskaera guztiei.

Bigarren zozketa bat egingo da gizonek planteatutako proiektuetarako, 25 urtetik beherakoak eta 25 urtekoak edo nagusiagoak banatuta harturik, talde bakoitzarentzako laguntzak betetzeko helburuz, oinarri hauetako 5. artikularekin ados.

Bigarren zozketa hau ez da beharrezkoa izango, talde bakoitzean, gizonek aurkeztutako proiektu kopurua eta Udalak dauzkan laguntza kopurua berberak edo gutxiago balira. Kasu horretan, zuzenean esleituko zaizkie diru-laguntza eskaera guztiei.

Oinarri hauetako 5. artikulua ezartzen dituen talderen baten diru-laguntza guztiak esleitzen ez badira, Lanbidek ezarritako irizpideak aintzat hartuko dira horiek estaltzeko.

Leioako Udalak zehaztuko du zozketa non eta noiz izango den. Aurretik, Leioako Udalaren eta Leioako Behargintzaren web orrietan (www.leioa.eu eta www.behargintzaleioa.net) jakinaraziko da zozketa non eta zein ordutan izango den.

2.- Diru-laguntzen emakida Alkatetza Dekretu bidez ebatziko da behin zozketa eginda.

3.- Ebazpenak ebatzi eta jakinarazteko gehienezko epea bi hilabetekoa da, eskabidea aurkezten den egunetik zenbatzen hasita. Epea igarota, ez badago berriazko ebazpenik, diru-laguntza eskabidea gaitzetsi dela ulertuko da.

4.- Behin prozedura ebatzita, interesdunek emakidaren ebazpenari buruzko berriazko jakinarazpen indibiduala jasoko dute.

II. KAPITULUA

TOKIKO EKINTZAIETZA-PROIEKTUEN BARRUAN, ENPRESAJARDUERA BERRIAK MARTXAN JARTZERA BIDERATUTAKO DIRU-LAGUNTZAK

7. ONURADUNAK

1.– Deialdi honetan jasotako laguntzen onuradun izan ahalko dira, eskabidea aurkezten duten unean, baldintza hauek betetzen dituzten pertsona ekintzaileak:

- a) Leioan erroldatuta daude eta Leioan bizi dira oinarri hauek argitaratzen diren datan. Baldintza hau ez da nahitaezkoa izango aurreikusita baldin badago enpresa-jarduera Leioan instalatzea. Kasu horretan, onuradunak EAEn erroldatuta egon beharko du eta bertan bizi.
- b) Langabeak dira eta enplegu-eskatzaile gisa izena emanda daude Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan.
- c) Enpresa-bideragarritasunaren plan bat edukitzea enpresa edo negozio berri bat martxan jartzeko. Leioako Behargintzak baliozkotzat jo beharko du plan hori, laguntza fasean.
- d) Behargintza Leioaren ekintzailtza-arloko aholkuak eta laguntza emateko prozesu batean daude.

- e) Enpresa jarduerak EAEn izan beharko du helbide sozial eta fiskala, baita lan zentroa ere.
- f) Leioako Udalak, 2013 eta 2014 ekitaldietan, ekintzaileei laguntzeko kudeatu dituen deialdietan, jarduera berria abian jartzeko laguntzarik jaso ez izana.

2.- Laguntza hauen onuradun izateko, promotoreak konpromiso hauek hartu beharko ditu:

- a) Beren enpresa-ideia aztertzen eta garatzen soilik arituko dira.
- b) Enpresa-ideia sortzeko eta garatzeko aholkuak eta laguntza ematea xede duten jarduera guztietara joan beharko dute. Leioako Behargintzak zehaztuko ditu jarduera horiek.
- c) Negozioa abian jartzeko tutoretza eta laguntza prozesua amaitu eta hiru hilabeteko gehienezko epean, alta ematea Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan.
- d) Xede berbererako diren beste diru-laguntzarik ez jasotzea.

Ekintzaileek ez badute alta ematen JEZen aipatu epean, ez dute izango diru-laguntzaren bigarren ordainketa jasotzeko eskubiderik.

3.- Zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza eta laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zigortuta dauden pertsona fisikoek ezin izango dituzte deialdi honetan jasotako laguntzak eskuratu, ez eta hartarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean daudenez ere, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, otsailaren 18ko 4/2005 Legeari, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerakoari, jarraituz.

4.- Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi den eta oraindik bideratzen ari den itzultzeko edo zigortzeko prozedura oro amaitzea ezinbestekoa izango da onuradunei laguntzak eta diru-laguntzak emateko eta ordaintzeko.

8. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK

Deialdi honetan adierazitako diru-laguntza jasotzeko, kapitulu honen babespean, pertsona sustatzaileek baldintzak bete beharko dituzte eta Leioako

Behargintzaren laguntza edo tutoretza jaso beharko dute enpresa edo negozio-proiektu bat martxan jartzeko behar diren ekintzak garatzeko.

Deialdi honen babespean egiten eta aztertzen diren jarduerak, gutxienez, hiru hilabete iraungo dute, eta 2015eko urriaren 31 baino lehenago hasi beharko dute, ezinbestean.

9. LAGUNTZA KOPURUA, ZENBATEKOA ETA ORDAINTZEKO MODUA

Laguntza kopurua eta promotoreei euren enpresa ideia garatzeko emango zaizkien gehienezko zenbatekoak honako hauek dira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2015eko urriaren 5eko ebazpenaren arabera:

Laguntza prozesua hasten den unean, 25 urte baino gutxiago duten ekintzaileentzat:

- Laguntza bat ekintzailea emakumea bada.
- Laguntza bat ekintzailea gizona bada.

Laguntza prozesua hasten den unean, 25 urteko edo urte baino gehiago duten ekintzaileentzat:

- 4 laguntza ekintzailea emakumea bada.
- 3 laguntza ekintzailea gizona bada.

Sustatzaileei enpresa jarduera berriak abian jartzeko eman beharreko laguntza, gehienez, 1.500 eurokoa izango da ekintzaile bakoitzeko. Zenbateko horrek % 15eko igoera izango du, baldin eta laguntza prozesua hasten duen unean ekintzailea 18 urtetik gorakoa eta 25etik beherakoa bada. Horrez gain, beste % 15eko igoera izango du baldin eta ekintzailea emakumezkoa bada.

Halaber, kapitulu honen babespeko onuradunek, Leioako enpresa mintegian sortutako lankidetzaren espazioan lanpostua izateko aukera edukiko dute Behargintza Leioak ezarritako laguntza edota tutoretza epealdian zehar. Interesik baleuka onuradunak, beren-beregi adierazi beharko luke Leioako Udalaren eskabide orrian.

Aldi baterako egonaldi horrek ez du esleipendunarentzako kosturik izango, baina 200 euroko fidantza utzi beharko du lankidetzaren espazioaren esleipena egiten den unean, udal enpresa mintegiko gune publikoa behar bezala erabili eta zaintzen dela bermatzeko. Fidantza hori itzuli egingo da esleipena amaitzen den unean, behin egiaztatuta espazioa behar bezala erabili dela.

Leioako Udalak bi ordainketatan eta honela ordainduko die onuradunei, betiere, aurretik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzutik behar diren ordainketak egiteko fondoak jaso baditu:

- Emandako diru-laguntzaren % 50 ordainduko diete lehendabizi, enpresa-proiektua martxan jartzeko aholkularitza-prozesua hasi eta bideragarritasun-plana adostean.

- Bigarren ordainketa bat egingo da, gainerako % 50arekin, ekonomia-jardueren gaineko zergan alta eman ondoren. Horretarako, laguntza-prozesua amaitzen denetik kontaktzen hasi eta hiru hilabeteko epean gehienez ere, ekonomia-jardueren gaineko zergan alta eman izanaren kopia aurkeztuko zaio Leioako Behargintzari, egindako jarduerak zehazten dituen azken memoria batekin batera. Leioako Behargintzak baliozkotzat jo beharko du memoria hori, eta memoriaren edukiak lan-planaren eta lortutako emaitzen jarraipena egiteko aukera eman beharko du.

Zenbateko horien diru-sarrera egiteko, esleipendunek Hirugarrenei Alta Emateko Agiria bete eta aurkeztu beharko dute.

10. EMAKIDA PROZEDURA

1.- Publizitate, konpetentzia eta objektibotasun irizpideei so eginik, kapitulu honetan araututako diru-laguntzak eskabidean aurkeztutako negozio-planaren balorazioaren arabera emango dira.

Balorazio hori Leioako Behargintzako eta beste Herri Administrazio bateko teknikariek egingo dute.

Leioako Udalaren Berdintasun Planak eta Lanbideren 2013-2016 Plan Estrategikoak (E4-1.3 ekintza-lerroa: gizonak eta emakumeak enplegua eta prestakuntza eskuratzeko orduan aukera berdinak dituztela, lana eta bizitza

privatua uztartzen direla eta genero identitatearen aniztasuna kudeatzeko bestelako politiketan aurrera egiten dela bermatzeko programa zehatzak garatzea. P1 – 3.3 ekintza-lerroa: Genero-perspektiba Lanbideren jardueran eta gobernantza-ereduan sartzea zeharkako prozesu gisa) markatutako ildo estrategikoei jarraiki, deialdi honetan genero ikuspegia txertatzen da. Horrela, 15 puntuko gehienezko balorazioaren ganean, honako aspektu hauek baloratuko dira, eta aspektu bakoitzari dagokion gehienezko balorazioa ere zehazten da:

- a) Emakumeen ekintzailtza: 2 puntu
- b) Berrikuntza: 4 puntu
- b) Inbertsioa eta aurreikusitako finantzaketa: 2 puntu
- c) Sortzen ari den aktibitate sektorea: 2 puntu
- d) Aurreikusitako kontratazioa: 3 puntu
- e) Talde eragilea: 2 puntu

Proiektu batek baino gehiagok azken balorazio berbera lortuko balute, a) atalean punturik gehien daukana lehenetsiko da. Berdinketa ez balitz horrela desegingo, b) atalean punturik gehien duena lehenetsiko da. Horrela egingo da, segidan, berdinketa desegin arte. Diru-laguntza hauek emango zaizkie proiektuetan puntuaziorik altuena erdiesten duten pertsoneri.

Erdietsitako puntuazioa aintzat hartuko zaie eskabidean Leioako Enpresa Mintegiko lankidetzaren guneko lanpostuaren gaineko interesa adierazi zutenenari. Horrela, puntuaziorik altuena dutenek lortu ahal izango dituzte eskuragarri dauden lanpostuak.

2.- Diru-laguntzen emakida Alkatetza Dekretu bidez ebatziko da behin esleipen prozesua bukatuta.

3.- Ebazpenak ebatzi eta jakinarazteko gehienezko epea bi hilabetekoa da, eskabidea aurkezten den egunetik zenbatzen hasita. Epea igarota, ez badago berariazko ebazpenik, diru-laguntza eskabidea gaitzetsi dela ulertuko da.

4.- Behin prozedura ebatzita, interesdunek emakidaren ebazpenari buruzko berariazko jakinarazpen indibiduala jasoko dute.

III. KAPITULUA XEDAPEN KOMUNAK

11.ESKABIDEAK TRAMITATZEA

1.- Deialdi honetan jasotako laguntzak eskuratzeko eskabideak aurkeztu, Leioako Udalaren eta Leioako Behargintzaren web orrietan eskuragarri dagoen (www.leioa.net eta www.behargintzaleioa.net) eredu ofizialaren arabera aurkeztu beharko dira.

2.- Diru-laguntzaren eskabidea behar bezala beteta aurkeztuko da, beharrezkoa den dokumentazioarekin batera, Udal Erregistro Nagusian (Elexalde 1 helbidean) edo Leioako Behargintzan (Mendibile 3 helbidean). Bulego bien arreta ordutegia astelehenetik ostiralera bitartekoa da, 8:30etik 14:30era. Dokumentazioa aurkezteko beste modu bat azaroaren 26ko 30/1992 Legeko, Administrazio Publikoen Erregimen Juridiko eta Administrazio Prozedura Komuneak, 38.4 artikulua aurreikusten duena da.

Interesdunak ez badu fisikoki eskabidea aurkezten Udal Erregistro Orokorrean edo Leioako Behargintzan, eta beste modu batez aurkezten badu, eskabidea behar bezala zigilatuta bidali beharko du faxez (944 022 541) edo posta elektronikoz (behargintza@leioa.net) 2015eko urriaren 19a baino lehen (eskabideak aurkezteko azken eguna).

3.- Eskabidearekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- a) Diru-laguntza hauek arautzeko den 2015eko uztailaren 23eko Ebazpenaren III. Eranskinean proposatzen den Lanbideren eredu ofiziala, www.lanbide.net, Leioako Udalaren webgune eta Leioako Behargintzaren webgunean aurki daitekeena.
- b) NAN fotokopia, edo bere kasuan, besteen kontura lan egiteko aukera bermatzen duen identifikazio ziurtagiria.
- c) Errolda agiria, leioaztarren kasuan izan ezik, ofizioz ziurtatuko baita.
- d) Eskatera egiten den unean langabezia egoera ziurtatzen duen agiria. Hori ziurtatzeko, Lanbidek egiten duen "Inskripzio epealdi eta lan-egoeraren txostena" aurkeztu behar da.

e) Ideia berriak abian jartzeko laguntza eskatzen bada, Gizarte Segurantzak egiten duen lan-bizitzaren agiria, oinarri hauek argitaratzen diren dataren ostean egina.

f) Laguntza eskatzen bada enpresa jarduera berriak abian jartzeko, nahitaez aurkeztu beharko da, gainera, enpresarako bideragarritasun plana. Plan horrek, gutxienez, honako atala hauek izan behar ditu:

- Sarrera
- Negozioaren deskribapena eta kokalekua
- Inbertsio proiektua eta finantzaketa iturriak
- Merkatu ikerketa
- Antolakuntza eta giza baliabideak (talde eragilea)
- Hartutako forma juridikoa
- Azterketa ekonomiko-finantzarioa.

Interesdunek ez badute eskabidea behar bezala betetzen edo harekin batera ez badituzte bidaltzen nahitaezko dokumentu guztiak, hauxe eskatuko diegu: hamar lan-eguneko epean hutsegitea zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko. Halaber, jakinaraziko diegu, hori egin ezean, eskabidea ezetsi egingo dugula eta horrek azaroaren 26ko 30/1992 Legearen, Herri Administrazioaren Araubideari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 71. artikuluan ezarritako ondorioak izango dituela.

12. AURKEZTEKO EPEA

Eskabideak oinarri arautzaile hauek Udalaren eta Leioako Behargintzaren webguneetan (www.leioa.net eta www.behargintzaleioa.net) argitaratu eta biharamunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira. Epea, edozein kasutan, 2015eko urriaren 19an bukatuko da.

13. LAGUNTZA JUSTIFIKATZEA

Laguntza edota tutoretza amaitu eta hilabeteko epean, gehienez, I. Kapituluaren aurreikusitako laguntza jaso dutenek oroitidazki bat edo txosten bat aurkeztu beharko dute Leioako Behargintzan; zehazki, laguntza jaso duten aldiaren enpresa-proiektuaren bideragarritasuna aztertze aldera zer lan egin dituzten zehazten duen oroitidazki bat, edo hala badagokio, proiektuaren bideragarritasunari buruzko txosten bat. Leioako Behargintzako teknikariek izenpetu behar dituzte dokumentu horiek.

Laguntza amaitu eta hiru hilabeteko epean, gehienez, II. Kapituluaren aurreikusitako laguntza jaso dutenek JEZen alta emanda dagoela ziurtatzen duen agiriaren kopia eta burututako jarduerak zehazten dituen Azken Oroitidazkia aurkeztu beharko dituzte Leioako Behargintzan. Oroitidazkia Leioako Behargintzak baliozkotu beharko du eta balio beharko du lan plangintza eta emaitzen jarraipena egin ahal izateko.

Aurreikusitako epeetan, diru-laguntza justifikatzen ez bada, diru-laguntza bueltatzeko arrazoi izango da. Beraz, artikuluko honek zehazten dituen justifikaziorako epeak igarota, ez bada justifikaziorik egin, jasotako zenbatekoak itzultzeko derrigortasuna eta geratzen diren zenbatekoak jasotzeko eskubidea galtzen dela adierazteko prozedura abiaraziko da.

14. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Oro har, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartutakoaren, 50.2 artikuluan jasotako eginbeharrak bete behar dituzte onuradunek, eta batik bat, betebehar hauek:

- Justifikatu behar dute laguntza emateko eta baliatzeko bide eman duten betebeharrak eta baldintzak betetzen dituztela eta jarduera egiten dutela.
- Egiaztapen- eta kontrol-jardueren mende jarri behar dute. Erakunde hauek egingo dituzte jarduera horiek: Leioako Udalak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, Ogasun eta Finantza Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, Europako Gizarte Fondoaren Unitate Administratzaileak, Europako Batzordeak eta Europako Kontuen Auzitegiak.
- Beste edozein administrazio publikok edo erakunde publikok edo pribatuk laguntzaren bat edo diru-laguntzaren bat ematen badie helburu bererako, horren berri eman beharko diete Leioako Udalari eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.
- Laguntza ematerakoan kontuan izan zen egoera objektibo edo subjektiboren bat aldatuz gero, horren berri eman beharko diete Leioako Udalari eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

-Gertaeraren batek funtsezko eran eragiten badio diruz lagundutako jardueren xedeari edo izaerari, horren berri eman beharko diete Leioako Udalari eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

-Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek, edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta sozietate publikoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan itzultzeko edo zigortzeko prozeduraren bat hasi bada eta oraindik bideratzen ari bada, horren berri eman beharko diete Leioako Udalari eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

15. DIRU-LAGUNTZA ALDATZEA

Oinarri hauetan jasotako laguntza emateko kontuan izan den edozein baldintza aldatzeak emandako laguntza aldatzea ekar dezake berekin, baldin eta onuradunak ezarritako gutxieneko betebeharrak betetzen baditu. Baldintza horiek aldatzeak emandako laguntzaren guztizkoa edo zati bat itzultzea badu ondorio, dagokion itzultze prozedurari ekingo diogu.

16. BESTE DIRU-LAGUNTZA EDO LAGUNTZA BATZUK ALDI BEREAN JASOTZEA

Deialdi honetan jasotako laguntza eskuratuz gero, onuradunek ezingo dute jaso beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek kontzeptu eta helburu bererako ematen duten ezein laguntza, diru-laguntza edo diru-sarrera.

17. EZ BETETZEA ETA EMANDAKO LAGUNTZAK ITZULTZEA

1.- Oinarri hauetan jasotako laguntzen onuradun izango diren pertsonen laguntza prozesua behar baino lehenago uzten badute, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikuluan jasotako kasuren batean badaude edo deialdi honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badute, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpen bidez adieraziko die, hala badagokio, jasotako zenbatekoen eta laguntza eman zen unetik bertatik sortutako legezko interesen guztizkoa edo zati bat itzuli behar dutela. Horretaz gainera, egoki diren gainerako ekintzak bideratu ahal izango ditugu, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan

xedatutakoaren arabera (dekretu horren bidez arautzen da Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kargura ematen diren diru-laguntzen bermeen eta itzultzeen araubide orokorra).

2.- Edozein arrazoi dela-eta, onuradunek I. eta II. Kapituluak aipatzen dituzten laguntza- edota tutoretza-prozesua behar baino lehenago uzten badute, hauxe izango da emandako diru-laguntza itzultzeko araubidea:

- Prozesua hasi eta hilabete baino lehenago utziz gero, onuradunek jasotako diru-laguntza osoa itzuli beharko dute eta ordaindu gabeko zenbatekoak, baleude, ezeztatuko dira.
- Bigarren hilabetea amaitu baino lehen utziz gero, honako hau itzuli beharko dute:
 - I. Kapituluak araututako diru-laguntzaren kasuan, jasotako diru-laguntzaren % 50.
 - II. Kapituluak araututako diru-laguntzaren kasuan, jasotako diru-laguntzaren % 35. Halaber, ordaindu gabe dagoen diru-laguntzaren bigarren zatia kobratzeko eskubidea galduko dute.

Itzuli beharreko zenbatekoei egoki diren interes legalak aplikatuko zaizkio, diru-laguntza ordaintzen den momentotik aurrerakoak.

Edozein kasutan, utzi arte burututako jardueren oroitidazkia aurkeztu beharko dute. Hala egiten ez badute, mantentzen den zenbatekoari dagokion diru-laguntza justifikatu gabe dagoela ulertuko da; ondorioz, diru-laguntza itzuli beharko dute, osorik.

3.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak hasiko du diru-laguntza itzultzeko prozedura, eta horren berri emango dio onuradunari. Zehazki, ez-betetzearen zergatiak jakinaraziko dizkio, eta eskatuko dio hamabost eguneko epean egoki deritzon alegazioak edo frogagiriak aurkezteko. Prozesua hasteak ekarriko du, bere kasuan, ordaindu gabe geratzen diren zenbatekoen ordainketa ezeztatzea.

4.- Alegazioak egiteko epearen barruan alegaziorik egiten ez bada edo alegazioak ezesten badira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendariak

ebazpena emango du. Diru-laguntza itzultzeko prozedura ebazteko gehienezko epea 12 hilabetekoa izango da.

5.- Ebazpenak ezartzen badu ez-betetzea gertatu dela eta interesdunak eskubidea galdu duela diru-laguntzaren guztizkoa edo zati bat jasotzeko, interesdunak Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko dizkio dagozkion zenbatekoak, gehienez ere bi hileko epean, ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Epe hori borondatezko epetzat joko dugu.

6.- Interesdunek dirua borondatezko epean itzultzen ez badute, premiamendubidez itzularazteko izapideei ekingo diegu.

18. DATU PERTSONALEN BABESA

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betetze aldera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bere jabetzako fitxategi batean sartuko ditu deialdi honetan araututako laguntzen eskabideetan jasotako datu pertsonalak. Fitxategi horri

«Enplegu eta prestakuntzarako diru-laguntzak» deritzo, eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak 2012ko urriaren 10eko emandako aginduaren bidez dago arautua (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren datu pertsonalen fitxategiak arautzen ditu agindu horrek).

Halaber, interesdunek eskubidea dute, legeak ezartzen duenaren arabera, datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta haien aurka egiteko. Horretarako, idazki bat bidali behar dute hori adierazteko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura (Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz).